

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
- Guztira, 20.876 langabe erregistratu dira abenduan. BAIren arabera, langabezia-tasa % 12,08koa da laugarren hiruhilekoan. - Afiliatutako biztanleek –% 0,3 egin dute behera azaroarekin alderatuta, baina urtebetean 2.801 enplegu irabazi dira. Erregistratutako kontratuak % 10,6 igo dira urtetik urtera. - Azalera handietako salmentek urtetik urterako –% 3,3ko igoera izan dute abenduan. - Abenduan sarrerak eta gaualdiak igo egin dira hiriko ostatuetan. Batez besteko egonaldia jaitsi egin da. 2025eko laugarren hiruhilekoan 292 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira, hau da, 2024ko aldi berean baino % 37,7 gehiago. - Bilboko aireportuak abenduan 520.020 bidaiari erregistratu ditu abenduan, 2024ko abenduan baino 26.940 gehiago. - Bilboko Portuan 2,8 milioi tonako trafikoa erregistratu da abenduan, aurreko urteko hil berean baino % 14,8 gehiago.		Azken data	Δ Urte artean (%) *aurreko aldia	Azken data
	Lan-merkatua			
	Afiliatutako biztanleak (kop.)	201.882	-0,3*	Abe.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	20.876	0,0*	Abe.
	Langabezia-tasa (BAI)	12,08	5,72*	4T25
	Erregistratutako kontratuak	12.283	10,6	Abe.
	Merkataritza			
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenten indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	129,8	3,3	Abe.
	Turismoa (hotelak eta apartamentuak)			
	Bidaia-arien sarrera (kop.)	95.287	7,1	Abe.
	Ostatu-gauak (kop.)	180.361	2,9	Abe.
	Batez besteko egonaldia (egunetan)	1,89	-4,1	Abe.
	Ekonomia eta enpresak			
Sortutako merkataritza-sozietateak	292	37,7	4T25	
Desegindako merkataritza-sozietateak	103	-6,4	4T25	
Garraioa				
Bidaia-arien aireko garraioa (kop.)	520.020	5,5	Abe.	
Salgaien itsasoko garraioa (milioi tona.)	2,8	14,8	Abe.	

DATU BAT

% 9,23

Langabezia-tasa (BAI) 2025. urtea

[2026ko urtarrilaren 31ko datuak]

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Abenduan 10 langabe gehiago erregistratu ziren, hau da, hilabete arteko $- \% 0,0$, eta 20.876 langabe daude udalerrian.

Emakumeen artean langabezia jaitsi egin da; gizonezkoen artean, aldiz, igo egin da, $- \% 1,1$ eta $+ \% 1,5$, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 127 emakume langabe gutxiago eta 137 gizon langabe gehiago zeuden.

Adin-tarteen arabera, langabeziak behera egin du gazteenen artean $- \% 3,2$ (61 gutxiago); 45 urtetik gorakoen taldean $- \% 0,1$ jaitsi da (11 gutxiago). 25 eta 44 urte artekoen taldean gora egin du $+ \% 1,1$ (82 langabe gehiago daude).

Zerbitzuetan izan ezik, sektore guztietan gora egin dute langabeek. Lehen sektorean $+ \% 0,5$ (2 gehiago), Industrian ($+ \% 3,4$ eta 46 langabe gehiago) eta Eraikuntzan $+ \% 0,6$ (+8). Zerbitzuetan $- \% 0,2$ jaitsi da langabezia (33 gutxiago). Behera egin du baita ere langabezian egonda lehenengo enplegua bilatzen ari direnen artean ($- \% 0,4$ eta 13 langabe gutxiago).

Benchmarking-a. Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasa $- \% 0,6$ murriztu da aurreko hilaren aldean. Sevillak izan du beherakadarik handiena: $- \% 2,4$. Bartzelonak bakarrik izan du igoera ($\% 0,8$).

Euskal hiriburuen multzoan (G-3), erregistratutako langabezia-tasa $\% 1,3$ koa izan da. Gasteizen $\% 1,8$ hazi da, Donostian $\% 1,7$ eta Iruñean $\% 0,2$.

Langabeziak behera egin du EAEn ($- \% 0,2$). Lurraldeka, Bizkaian $- \% 0,7$ jaitsi da eta Araban mantendu egin da ($\% 0,0$). Gipuzkoan bakarrik igo da, $+ \% 1,0$.

2025. urteko balantzea. Bilbok 2024an baino 191 langabe gutxiagorekin amaitu du urtea ($- \% 0,9$). Urteko balantzean, langabeziak gora egin du, batez ere gizonen artean ($- \% 2,0$ vs. $\% 0,0$).

Langabeziak behera egin du sektore guztietan: zerbitzuetan ($- \% 0,8$ eta 119 langabe gutxiago), Eraikuntzan ($- \% 4,4$ eta 58 gutxiago), industrian ($- \% 3,6$ eta 51 gutxiago) eta lehen sektorean ($- \% 2,8$ eta 11 gutxiago). Aurretik enplegurik izan ez dutenen kopuruak gora egin du, kasu honetan 48 gehiago izan dira ($+ \% 1,5$).

Erregistratutako langabeak

Hilabete artekoa Δ

Abendua	20.876 pertsona
	$\% 0,0 \blacktriangle$
Emakumeak	$\% 1,1 \blacktriangledown$
Gizonak	$\% 1,5 \blacktriangle$

Benchmarkina

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	$\% 0,0 \blacktriangle$
G-5	$\% 0,6 \blacktriangledown$
G-3	$\% 1,3 \blacktriangle$

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Afiliazioa

Bilboko enpresetan 201.882 afiliatu zeuden abenduaren amaieran, hau da, -% 0,3ko jaitsiera izan zen eta 704 enplegu gutxitu ziren azaroarekin alderatuta.

Araubide guztiek egin dute behera: Orokorrak 608 enplegu galdu ditu aurreko hilaren aldean, eta Autonomoen Araubide Bereziak 82 afiliazio galdu ditu (-% 0,4 bi kasuetan); Etxeko Langileenak 13 enplegu gutxiago ditu (-% 0,2) eta Araubide Bereziek (Nekazaritzakoa eta Itsasokoa) afiliatu bat gutxiago.

Sektore guztiek egin dute behera: zerbitzuak, 519 afiliatu (-% 0,3), eraikuntza 145 (-% 1,5), industria, 36 (-% 0,4) eta lehen sektorea, 4 afiliatu (-% 1,7).

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, nabarmenak dira hezkuntzako, administrazio-jardueretako, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetako eta informazio eta komunikazioen adarretan izandako igoerak (-511, -358, -311 eta -215, hurrenez hurren). Osasuna, Gizarte Zerbitzuak, Merkataritza eta Administrazio Publikoa adarretan igo dira (576, 315, 170, 79, hurrenez hurren).

Benchmarking. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak -% 0,8ko jaitsiera izan du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztiek behera egin dute. Zaragozak izan du atzerakadarik handiena (-% 1,6) eta Sevillak txikiena (-% 0,3).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, -% 1,3 jaitsi da. Behera egin du Donostian (-% 1,1), Gasteizen (-% 1,2) eta Iruñean (-% 1,6).

EAEn, oro har, afiliatuak -% 0,8 jaitsi dira hilabete artean. Lurraldeei dagokienez, denetan egin du behera afiliazioak. Araban -% 1,1, Gipuzkoan -% 0,8 eta Bizkaian -% 0,6.

2025. urteko balantzea. 2025. urtea ixtean, aurreko urtean baino pertsona gehiago zeuden afiliatuta hiriko enpresetan. Hain zuzen ere, igoera % 1,4koa izan da, hau da, 2.801 enplegu gehiago egon dira.

Araubide Orokorra bakarrik hazi da, % 1,8 (3.042 afiliatu gehiago). Autonomoen Araubide Bereziak -% 0,6 egin du behera (133 afiliatu gutxiago), Etxeko Langileen Sistemak, -% 1,5 (97 gutxiago) eta Bestelakoen epigrafeak, -% 1,6 (11 gutxiago).

Sektoreka, Zerbitzuek 3.399 afiliatu gehitu dituzte (% 1,9), eta Eraikuntzak, 71 (% 0,8). Industriak 661 enplegu galdu ditu (-% 7,3) eta lehen sektoreak 8 (-% 3,4).

Zerbitzuetan, termino absolutuetan enplegu gehien hazten diren adarrak honako hauek dira: Administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak, Hezkuntza, Osasuna, Gizarte-zerbitzuak, Arte- eta aisialdi-jarduerak, Informazioa eta komunikazioak eta Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak.

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete artekoa Δ

Abendua	201.882 pertsona
	% 0,3 ▼
Araubide orokorra	% 0,4 ▼
Autonomoak	% 0,4 ▼
Etxeko langileak	% 0,2 ▼
Bestelakoak	% 0,1 ▼

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete artekoa Δ

Abendua	201.882 pertsona
	% 0,3 ▼
Zerbitzuak	% 0,3 ▼
Eraikuntza	% 1,5 ▼
Industria	% 0,4 ▼
Lehenengo Sektorea	% 1,7 ▼

Benchmarkina

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 0,3 ▼
G-5	% 0,8 ▼
G-3	% 1,3 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Kontratuak

Abenduan 12.283 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 10,6 eta 1.182 kontratu gehiago. Urtetik urtera areagotu egin dira gizonen eta emakumeen egindako kontratuak: 565 eta 617 gehiago, hurrenez hurren.

Kontratuek kontuan hartutako adin-talde guztietan egin dute gora. Gazteenen taldean % 26,8 (713 kontratu gehiago); 25-44 urtekoen taldean % 0,5 (28 gehiago); 45 urte eta gehiagoko taldean % 14,0 (441 gehiago). Erregistratutako kontratuen % 43,4 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.327 kontratu), % 27,5 berriz, gazteenei (3.372) eta gainerako % 29,2a, ordea, 45 urte eta gehiagokoei (3.584).

Sektoreka, Zerbitzuetan (% 11,1 eta 1.168 gehiago) eta Industrian (% 15,1 eta 52 gehiago) igo dira kontratuak. Jaitsi egin dira Eraikuntzan (-% 13,3 eta 36 gutxiago), eta Lehen Sektorean (-% 40,0 eta 2 gutxiago). Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 80,1 izan dira abenduan. 8.714 pertsona kontratatu dira eta % 57 emakumeak dira. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,41 kontratu.

2025. urteko balantzea. Urtearen amaieran 140.339 kontratu erregistratu dira, 2024. urtean baino 1.877 kontratu gutxiago (-% 1,3). Segmentu gazteenak soilik egin du gora kontratazioan (% 1,3). Industrian eta Eraikuntzan bakarrik igo dira kontratuak (% 5,6 eta % 5,2 gehiago, hurrenez hurren). 2025ean erregistratutako kontratuen % 24,7 mugagabeak dira.

Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta

BAIk okupazioaren eta langabeziaren jaitiera handiarekin eta langabeziaren igoerarekin itxi du 2025eko laugarren hiruhilekoa, eta langabezia hori gizonen artean bakarrik igo da.

Biztanleria aktiboak gora egin du, gizonen esker.

Datuetan: +2.300 aktibo, -8.000 landun eta +10.300 langabe

Biztanleria ez-aktiboa 1.800 pertsonatan jaitsi da hiruhilekoan.

Laugarren hiruhilekoan landunen kopuruak behera egin du (-% 4,9). Beherakada hori bi sexueta gertatzen da, baina nabarmenagoa da emakumeen artean (4.800 emakume landun gutxiago eta 3.400 gizon landun gutxiago).

Enplegu-tasa ehuneko 2,75 puntu jaitsi da, eta % 51,94an geratu da.

Sektoreka, Industriak 3.500 enplegu irabazi ditu 2025eko azken hiruhilekoan; aldiz, Zerbitzuek 11.100 galdu ditu, eta Eraikuntzak 600.

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Abendua	12.283 kontratu
	% 10,6 ▲
Emakumeak	% 9,7 ▲
Gizonak	% 11,9 ▲
Lehenengo Sektorea	% 40,0 ▼
Industria	% 15,1 ▲
Eraikuntza	% 13,3 ▼
Zerbitzuak	% 11,1 ▲
Kontratutako pertsonak	% 8,4 ▲

Biztanle landunei egindako inkesta BAI

- IV. hiruhilekoa

Hiruhileko arteko Δ

Langabezia-tasa	% 12,08
	5,72 pp ▲
Emakumeak	0,50 ehuneko puntu ▲
Gizonak	10,81 ehuneko puntu ▲
Biztanleria aktiboa	% 1,3 ▲
Biztanleria landuna	% 4,9 ▼
Biztanleria langabea	% 92,0 ▲

Langabeek gora egin dute (10.300 pertsona gehiago); hau da, aurreko hiruhilekoko 11.200etik 21.500 langabetura igaro dira urteko laugarren hiruhilekoan. Gizonen artean bakarrik igo da, 10.300 gizon langabetu gehiago. Langabezian dauden emakumeak mantendu egin dira hiruhileko honetan.

Langabezia-tasak gora egin du 5,72 ehuneko puntutan eta, beraz, % 12,08koa da. Emakumeentzat % 9,82an geratzen da, baina gizonentzat % 14,13raino igozen da.

2025. urteko balantzea. Emaizak hobetu egin dira aurreko urtearekin alderatuta. Urteko batez bestekoan, Bilbok 2025. urtea itxi du landunen % 5,8ko igoerarekin (9.200 landun gehiago), langabetuen kopuruak ere % 2,3 behera egin du (400 langabe gutxiago).

Urteko langabezia-tasa % 9,23ra jaitsi da, 2024. urtekoa baino baxuagoa (% 9,95).

MERKATARITZA

Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek, abenduan % 3,3 egin dute gora urte batetik bestera, egutegi-eragina duten datu zuzenduetan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 0,6 jaitsi dira salmentak.

Elikagaien salmentek % 3,9 egin dute gora 2024ko abenduarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentek % 2,3ko gorakada izan dute.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko -% 1,1eko atzerakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute Gipuzkoan (% 2,2), eta Araban (% 0,9). EAEn, orokorrean, % 2,6 egin dute gora.

2025. urteko balantzea. 2025eko hamabi hilabeteetan, Bizkaiko saltoki handietako salmentek gora egin dute % 1,6, aurreko urtearen aldean.

Aldi honetan, jatekoen salmentek % 1,0 egin dute gora, eta gainerako produktuenak % 2,6.

Landunen kopurua % 1,1 areagotu da.

Lurraldeka, 2024. urtearekin alderatuta, saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentak % 0,2 hazi dira Gipuzkoan eta -% 0,1 jaitsi dira Araban. EAEn, orokorrean, % 0,9 egin dute gora.

Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaia

Urte artekoa Δ

Abendua	129,8
Salmenten indizea	% 3,3 ▲
- Elikadura	% 3,9 ▲
- Gainerako produktuak	% 2,3 ▲
Lanean ari diren langileak	% 1,1 ▼

TURISMO

Oro har, enpresa-establezimenduetan, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta, abenduan 95.287 sarrera eta 180.361 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera +% 7,1 eta +% 2,9, kasu bakoitzean).

Bilboko hotel-establezimenduetan 155.193 ostatu-gau erregistratu dira abenduan, hau da, % 0,8ko hazkundea egon da urtetik urtera (1.228 ostatu-gau gehiago).

Bidaia-ien sarrerak ere gora egin du, % 7,9. Gora egin du atzeritarren artean eta estatukoaren artean.

Bidaia-ien batez besteko egonaldia 1,81 gaualdira jaitsi da (1,94 aurreko urteko abenduan).

Hotel-establezimenduek emandako errentagarritasun-datuak kontuan hartuta, tarifak eta gela eskuragarriko batez besteko sarrerak gora egin dute, eta 99,6 eta 56,4 eurokoak dira, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoaren establezimenduek 9.500 sarrera erregistratu dituzte guztira urrian, hau da, % 1,2 gehiago eta 25.168 gaualdi gehiago, eta 2024ko abenduan baino % 24,6 gehiago.

2025. urteko balantzea. Hotel establezimenduetako jarduera turistikoak 2.382.586 gaualdi eta 1.233.349 bidaia-ier-sarrerarekin itxi du 2025. urtea (2024an baino % 7,8 eta % 9,3 gehiago, hurrenez hurren).

Turista atzeritarrak hiriko hoteletako turisten sarreren % 52,5 izan dira (% 51,6 izan ziren 2024an), urtetik urtera % 11,2ko hazkundea izanik. Estatuko sarreren kopuruak ere gora egin du, % 7,2.

Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: Frantzia (% 11,5), Erresuma Batua (% 10,2), AEB (% 10) eta Alemania (% 9,9).

Estatukoaren artean, Madrildik (% 24,9), EAETik (% 14,5), Kataluniatik (% 13,4) eta Andaluziatik (% 7,7) etorritakoak nabarmentzen dira.

Batez besteko egonaldia 1,93 ostatu-gauekoa da bidaia-ier bakoitzeko, 2024an lortutakoa baino baxuagoa (1,96).

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 91,6 eurokoak dira eta % 4,3 handitu dira. Bestalde, hoteletako batez besteko tarifak 122,9 eurokoak dira (% 4,2).

Apartamentu turistikoaren establezimenduek 163.492 sarrera erregistratu dituzte guztira 2025. urtean, hau da, 2024an baino % 46,8 gehiago, eta 341.139 gaualdi, % 34,3 gehiago.

Establezimenduak (hotelak eta apartamentuak)

Urte artekoa 

Abendua

Ostatu-gauak, guztizkoak	180.361 ostatu-gauak
	% 2,9 
Sarrerak, guztira	95.287 sarrerak
	% 7,1 
Egonaldia, batez beste	1,89 ostatu-gau/bidaia-ieriko

Hotel establezimenduak

Urte artekoa 

Abendua

Ostatu-gauak	155.193 ostatu-gauak
	% 0,8 
3 izar eta gehiagoko hotelak	% 1,6 
Gainerako hotelak eta pentsioak	% 1,3 
Bidaia-ien sarrerak	85.787 sarrerak
	% 7,9 
Espainiakoak	% 2,5 
Atzeritarrak	% 18,6 
Egonaldia, batez beste	1,81 ostatu-gau/bidaia-ieriko
	% 6,7 

Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Eguneko batez besteko tarifa logelako (€)	% 8,1 
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 8,2 

Apartamentu turistikoak

Urte artekoa 

Abendua

Ostatu-gauak	25.168 ostatu-gauak
	% 24,6 
Bidaia-ien sarrerak	9.500 sarrerak
	% 1,2 

Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitateez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatu ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe".
198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena.
(Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

Oro har, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta, 2025ean 1.396.841 sarrera eta 2.723.725 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera +% 12,6 eta +% 10,5, hurrenez hurren).

Benchmarking. Euskal hiriburuak aintzat hartuta (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, % 6,8 hazi da urtetik urtera. Donostian % 6,2 eta Iruñean % 20,1 igo da. Gasteizen -% 2,3 egin du behera.

EAE osoan % 1,7koa izan da igoera aurreko urteko abenduaren aldean. Eta hiru lurraldeetan hazi da: % 3,4 Gipuzkoan, % 1,5 Araban eta % 0,4 Bizkaian.

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek % 6,6ko gorakada izan dute. Taldeko hiriburu guztietan izan da igoera. Valentziak izan du igoerarik handiena: % 12,7.

Benchmarking-a. Hotel-establezimenduak

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 0,8 ▲
G-5	% 6,6 ▲
G-3	% 6,8 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza

G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

ENPRESAK

Merkataritza-sozietate berriak

2025eko laugarren hiruhilekoan Bilbon 292 merkataritza-sozietate berri eratu dira; hau da, % 37,7 igo da aurreko urteko aldi beraren aldean (80 sozietate gehiago, datu absolutuetan).

Sektoreka, Zerbitzuetan 237 sozietate sortu dira, 2024ko azken hiruhilekoan baino 63 gehiago; Eraikuntzan 35 eta Industrian 20 (6 eta 12 gehiago, hurrenez hurren).

Laugarren hiruhilekoan 103 sozietate desegin dira, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean baino zazpi gutxiago. Desegindakoetatik, % 82,5 Zerbitzuen sektorekoak dira, % 15,5 Eraikuntzakoak eta % 1,0 Industriakoak.

2025. urteko balantzea. 2025. urtearen amaieran, guztira 984 sozietate berri sortu dira hirian, hau da, urtetik urtera 120 gehiago (% 13,9).

Sektoreka, gora egin du urtetik urtera sortutako sozietateen kopuruak; guztira, Zerbitzuetan 814 izan dira (93 gehiago); Eraikuntzan, 120 (28 gehiago), eta Lehen sektorean sei sortu dira (5 gehiago). Industrian 44 erregistratu dira (6 gutxiago).

2025. urtean guztira 408 sozietate desegin dira, 2024. urtean baino % 3,6 gehiago. Zerbitzuen sektoreari % 82,8 dagokio.

Merkataritza-sozietateak

Urte artekoa Δ

IV. hiruhilekoa

Sortuak	292
	% 37,7 ▲
Deseginak	103
	% 6,4 ▼

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko bidaiariak

Bilboko aireportuak 520.020 bidaiari izan ditu abenduan (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 5,5 eta 26.940 bidaiari gehiago. Emaiza horiei esker aireportuak abenduko daturik onena lortu du martxan jarri zenetik.

Hegaldi nazionalako bidaiarien kopuruak behera egin du, izan ere, 6.190 bidaiari gutxiago izan dira (−% 2,1); hala ere, nazioarteko bidaiarien kopuruak gora egin du % 17,5 eta 33.881 bidaiari gehiago izan dira.

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 4.038 izan dira (+% 1,7), eta garraiatutako salgaiak igo dira (% 0,7).

Benchmarking-a. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 7,7ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokienez. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Sevilla da altuena (% 12,1) eta Bartzelona baxuena (% 5,2).

G-3 multzoan, bidaiarien zirkulazioari begira, −% 10,9 gutxitu da. Gora egin du Gasteizen (% 4,2) eta behera Donostian (−% 20,9) eta Iruñean (−% 5,8).

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Abendua	520.020 bidaiari
	% 5,5 ▲
Espainiakoak	% 2,1 ▼
Nazioartekoak	% 17,5 ▲
Salgaiak (kg)	% 0,7 ▲
Hegaldiak	% 1,7 ▲

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 5,5 ▲
G-5	% 5,2 ▲
G-3	% 22,8 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

2025. urteko balantzea. Bilbok % 4,2ko igoerarekin itxi du 2025a, aurreko urtearekin alderatuta, eta 7.062.681 bidaiari izan ditu, zifra absolutuetan 2024an baino 285.036 bidaiari gehiago, eta seriea hasi zenetik urteko daturik onena da.

Hegaldi komertzial nazionaletan bidaiariak % 0,5 egin dute behera (18.486 gutxiago) eta nazioarteko hegaldietan zenbatutakoek % 10,7 egin dute gora (303.575 gehiago) 2024. urtearen aldean.

Garraiatutako salgaien urteko datuari dagokionez % 23 egin dute gora, eta operatutako hegaldiak % 3,7.

Portuko garraioa

Bilboko Portuak 2,8 milioi tonako trafikoa izan zuen abenduan, hau da, % 14,8 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan abenduan kudeatzen diren salgaien % 60,2 izan da, eta urte arteko % 21,7ko igoera erregistratu du. Solteko gaien trafikoa % 17,6 igo da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrena % 1,0.

Abenduan ez da itsas-bidaietako jarduerarik erregistratu.

2025. urteko balantzea. 2025. urtea amaitzeko, 2024. urtearekin alderatuta -% 7,1eko beherakada egon da portuko trafikoan, eta garraiatutako 32,1 milioi tonatara iritsi da.

Solteko salgai likidoen trafikoan, -% 9,5eko beherakada egon da urtetik urtera. Solteko gaien trafikoa % 1,3 igo da eta salgai orokorrena -% 4,2 jaitsi da.

2025ean 95 gurutzaontzi eta gurutzaontziko 181.016 bidaiari erregistratu ziren

Itsasoko garraioa Abendua

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa	2,8 milioi tona.
	% 3,8 ▲
Bidaiarien garraioa	2.985 bidaiari
	% 51,5 ▼
Gurutzaontziko bidaiariak (kop.)	0
	% 100 ▼

ADIERAZLEEN KOADROA

	Azken dataua	Urte arteko aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	20.876	0,0*	2025eko abendua
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	201.882	-0,3*	2025eko abendua
Erregistratutako kontratuak (kop ^o)**	12.283	10,6	2025eko abendua
Biztanleria aktiboa (milaka)	178,1	1,3*	2025eko IV. HH
Biztanleria okupatua (milaka)	156,6	-4,9*	2025eko IV. HH
Biztanleria langabetua (milaka)	21,5	92,0*	2025eko IV. HH
BAIko langabezia-tasa (%)	12,08	5,72* e.p.	2025eko IV. HH
Merkataritza			
Kontsumo-prezioen indizea (KPI)***	120,7	3,0*	2025eko abendua
Afiliatuak**	20.667	-0,9*	2025eko abendua
Txikizkako merkataritza-salmenta (indizea)***	113,5	3,7	2025eko III. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	129,8	3,3	2025eko abendua
Turismoa			
Hotel establezimenduak			
Bidaia-erien sarrerak	85.787	7,9	2025eko abendua
Ostatu-gauak	155.193	0,8	2025eko abendua
Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaia-eriak)	1,81	-6,7	2025eko abendua
Hotelen okupazio maila (%)	47,80	-1,1 p.p.	2025eko abendua
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	56,42	8,2	2025eko abendua
Apartamentu turistikoak			
Bidaia-erien sarrerak	9.500	1,2	2025eko abendua
Ostatu-gauak	25.168	24,6	2025eko abendua
Batez besteko egonaldia apartamentuetan	2,65	16,7	2025eko abendua
Ekonomia eta enpresak			
Bizkaiko BPGd-a	108,5	0,7*	2025eko III. HH
Industria-produkzioa (indizea)**	114,6	4,0	2025eko aza.
Merkataritza-sozietate berriak	984	13,9	2025
Zerbitzuen salmentak (indizea)***	122,3	3,6	2025eko III. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²)	5.150,6	8,4*	2025eko III. HH
Bigarren eskuko etxebizitzaren prezioa (m ²)	3.340,6	-2,9*	2025eko III. HH
Etxebizitzaren alokairuaren prezioa (€/hilabete)	872,5	-6,6*	2025eko II. HH
Garraioa			
Bidaia-erien aireko garraioa (kop.)	520.020	5,5	2025eko abendua
Hegaldiak	4.038	1,7	2025eko abendua
Salgaien itsas garraioa (milioi tona.)	2,8	14,8	2025eko abendua

* Aurreko aldiarekiko aldakuntza-tasa. ** Enpresen arabera, Bilbon. *** Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Guk egina, datu hauetan oinarrituta: Eustat, EIN, Inklusio, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioa, Eusko Jaurlaritzak, Lanbide, SEPE, Merkataritza Erregistroa, AENA, Estatuko Portuak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Cotrabi.

GRAFIKOAK

Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta




Erregistratutako langabezia




Afiliatuak



Erregistratutako kontratuak



Sozietate berriak



Hoteletako ostatu-gauak (kop.)

